



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Eraikuntza-sektorea 2021ean

COVIDaren krisiaren ostean,
susperraldi partziala izan da aurten



Aurkibidea

1. Eraikuntza-sektorearen ekoizpen-jarduera Euskadin eta Espainian	4
2. Eraikuntza-sektorearen jarduera Euskadin emandako obra handien lizentziatik abiatuta	11
3. Etxebizitzen merkatua Euskadin	14
4. Euskadiko eraikuntza-sektorearen enpresa-ehunduraren bilakaera	16
5. Eraikuntza-sektorearen enpleguaren bilakaera: Covid-19aren krisiaren eragina	18
6. Ondorioak	22



Grafikoen eta taulen aurkibidea

1. grafikoa.	Merkatuko prezioaren arabera benetako BPGd-aren eta Euskadiko eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. 2010-2021.....	4
2. grafikoa	Euskadiko ekonomiaren gainean eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren eragin erlatiboaren bilakaera 2010-2021 eta hiruhilekoko BEGd-aren bolumena	5
3. grafikoa	Euskadiko eraikuntza-sektorearen kostuen indizea 2019-2021.....	6
4. grafikoa	Euskadiko Eraikuntza Sektoraren Koiunturaren indizea 2015-2021.....	7
5. grafikoa	Merkatuko prezioaren arabera benetako BPGd-aren eta Espainiako eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. 2008-2021.....	8
6. grafikoa	Euskadin eta Estatuan amaitu dituzten etxebizitza libreak. 2007-2021.....	9
7. grafikoa	Euskadin eta Estatuan hasi dituzten etxebizitza libreak. 2007-2021.....	9
8. grafikoa	Etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioen (amaitutako etxebizitzak) bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2021.....	10
9. grafikoa	Etxebizitza babestuen aldi baterako kalifikazioen (hasitako etxebizitzak) bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2021.....	10
10. grafikoa	Obra handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2021.....	11
11. grafikoa	Obra handien lizentziak, Euskadiko obraren xedearen arabera. 2010-2021(*).....	12
12. grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruaren bilakaera (berriak eta birgaitzekoak) Euskadiko obra handien lizentzien arabera. 2010-2021(*).....	13
13. grafikoa	Euskadiko eta Espainiako etxebizitza berriaren Etxebizitzaren Prezioaren Indizearen bilakaera. 2007-2021.....	14
14. grafikoa	Euskadiko eta Espainiako etxebizitza berriaren Etxebizitzaren Prezioaren Indizearen bilakaera. 2008-2021	14
15. grafikoa	Euskadiko eta Espainiako bigarren eskuko etxebizitzaren Etxebizitzaren Prezioaren Indizearen bilakaera, 2019 eta 2021eko hiruhileko bakoitzeko.	15
16. grafikoa	Etxebizitzaren salerosketen bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2009-2021.....	15
17. grafikoa	Eraikuntzaren sektoreko eta Euskadiko ekonomia osoko establezimenduen kopuruaren bilakaera. 2008-2021 (erreferentziako urtearen urtarilaren leko datuak).....	16
18. grafikoa.	Euskadiko eraikuntza-sektorearen enpresa-ehundurak izan duen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian 2008-2021.....	17
19. grafikoa.	Euskadiko ekonomian eraikuntzaren sektorean ari diren langileak (milaka pertsona). 2005-2021.....	18
20. grafikoa.	Euskadiko enpleguaren aldakuntza-tasa: oro har eta eraikuntzaren sektorean 2006-2021	18
21. grafikoa.	Espainiako eraikuntza-sektoreko biztanleria okupatuaren bilakaera. 2008-2021.....	20
22. grafikoa.	Eraikuntza-sektorearen enpresa-ehundurak izan duen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian. 2008-2021.....	20
1.taula.	Euskadiko ekonomiaren sektore guztien BEGd-ren bilakaera eta hirugarren sektoreko eta industriako adar nagusiak. 2019-2021 eta hiruhilekoaren arabera.....	5
2.taula.	2019-2021 BPGd-aren gastu erantsiaren bilakaera (Kateatutako bolumenaren indizearen urte arteko aldakuntza-tasa).....	6
3.taula.	Obra handien lizentziak, Euskadiko obraren xedearen arabera. 2010-2021(*).....	12
4.taula.	Bizitegi-erabilerako obra handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2016-2021	13
5.taula.	COVID-19aren ondorioz ABEEan zeuden pertsonen bilakaera, Euskadiko jarduera-sektorearen arabera 2020ko martxoa-2021eko abendua.....	19
6.taula.	Euskadin afiliatutako pertsonak jarduera-sektorearen eta erregimen motaren arabera. 2021.....	21



1. Eraikuntza-sektorearen ekoizpen-jarduera Euskadin eta Espainian


2021ean Euskadiko ekonomia % 5,6 hazi zen: azken hamaika urtetako erregistrarik altuena baino ehuneko bi puntu gehiago (2016an % 3,3 hazi zen). **Euskadiko eraikuntza-sektorea % 2,4 hazi da** 2021ean: Euskadiko ekonomia orokorraren erdia baino apur bat gutxiago, eta 2021eko bigarren hiruhilekoan izan dute urte arteko hazkunde-tasarik altuena (+ % 11,5) eta **urtearen amaieran intentsitatea galdu** du.

Euskadiko eraikuntza-sektorea Euskadiko ekonomiaren hazkundearen erdia baino gutxiago hazi da 2021ean.


2021ean sektoreak izan duen hazkunde-tasa txikiagoaren **arrazoia da, hein batean behintzat, pandemiak inpaktu txikiagoa izan zuela sektorean 2020an (-% 8,2)** Euskadiko ekonomia osoarekin alderatuz gero (-% 9,9).

1. grafikoa. Merkatuko prezioaren araberako benetako BPGd-aren eta Euskadiko eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. 2010-2021. (Kateatutako bolumenaren indizearen urte arteko tasak)

Urtez urteko datuak



Hiruhilekoaren araberako datuak



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak



2021ean eraikuntza-sektoreak izan zuen hazkundera industriak eta zerbitzuek izan zutena baino nabarmen txikiagoa da.

2021ean, sektore guztiek hazkundera izan dute berriro ere urteko bigarren hiruhilekotik aurrera izandako gorakadak direla eta, nahiz eta eraikuntza-sektorearen (% 2,4) hazkundera nabarmen gaitzen duten industriak eta energiak (% 8,5) eta zerbitzuek (% 5,0).

Gogorarazi behar da 2020an eraikuntzaren sektorea (-% 8,2) izan zela Covid-19ak gutxien kaltetu zuena lau jardura-sektore nagusien artean. Zerbitzuen sektoreak BEGd-ren % 9,0 galdu zuen eta % 10aren gaineratik geratu ziren industriaren eta energiaren sektorea (-% 11,2) eta lehen sektorea (-% 15,0).

1.taula. Euskadiko ekonomiaren sektore guztien BEGd-ren bilakaera eta hirugarren sektoreko eta industriako adar nagusiak. 2019-2021 eta hiruhilekoaren arabera. (Kateatutako bolumenaren indizearen urte arteko tasak)


	2019	2020	2021	2021				
				IV	I	II	III	IV
NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA ARRANTZA	3,2	-15,0	1,8	-28,1	-7,1	7,8	4,6	2,6
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,3	-11,2	8,5	-6,8	-1,1	30,2	5,5	4,3
ERAIKUNTZA	3,1	-8,2	2,4	-6,5	-2,4	11,5	1,3	0,5
ZERBITZUAK	2,5	-9,0	5,0	-7,7	-3,5	15,5	4,0	5,4
<i>Merkataritza, ostalaritza eta garraioa</i>	2,6	-18,1	8,9	-18,5	-5,5	26,1	6,1	12,2
<i>Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak</i>	2,3	1,6	2,5	1,3	1,6	3,1	2,6	2,6
<i>Gainerako zerbitzuak</i>	2,5	-8,6	4,1	-5,2	-5,0	17,3	3,5	3,1

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

2021ean, eraikuntzaren BEGd-k Euskadiko ekonomia osoaren gainean izan zuen pisu erlatiboa (% 5,8) pandemia aurretik baino hamarren bat txikiagoa izan zen, eta sektoreak aurreko hamarkada hasieran zuen mailatik oso urrun geratu zen (2010ean % 7,8).

2021ean, eraikuntzaren sektoreak % 5,8ko ekarpena egin zion Euskadiko ekonomiaren BEGd-ari.

2. grafikoa. Euskadiko ekonomiaren gainean eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren eragin erlatiboaren bilakaera 2010-2021 eta hiruhilekoko BEGd-aren bolumena



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak



2021eko kontsumoaren bilakaera oso ona da bigarren hiruhilekoan inflazioaren lehen tentsioak agertu ziren arte.

Gastua eta inbertsio publikoa izan dira 2020an BGPd-aren jardueraren mailari eutsi diotenak, kontsumo pribatua erori egin baita. 2021ean, gastu publikoa eta Euskadiko etxeetako kontsumoa hazi egin dira (% 3,0 eta % 5,3 hurrenez hurren), eta 2019ko balioak gainditu dituzte (% 1,8 eta % 2,2).


2. taula. 2019-2021 BGPd-aren gastu erantsiaren bilakaera (Kateatutako bolumenaren indizearen urte arteko aldakuntza-tasa)

	2019	2020	2021	2020					2021					
				IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV		
AMAIERAKO KONTSUMOAREN GASTUA	1,9	-8,9	4,8	-7,0	-2,5	18,1	2,4	2,7						
Etxeetako azken kontsumoaren gastua	1,8	-12,4	5,3	-10,6	-3,7	22,6	2,1	3,0						
Administrazio publikoaren amaierako kontsumoaren gastua	2,2	3,8	3,0	6,5	1,6	5,2	3,5	1,7						

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

Alabaina, **2021eko bigarren erdian inflazioaren zurrunbiloa hasi zen, horniduren merkatuekin zeuden tentsioengatik gehienbat:** lehengaiak eta energia. Euskadiko ekonomian ez zen halakorik ikusten azken hamarkadatan. Inflazioaren tentsio horiek **bete-bete izan zuten eragina eraikuntzaren sektorean, eta urteko azken hilabeteen % 5 baino gehiago hazi zen** aurreko urtearekin alderatuta edo % 2,7 batez beste 2021ean.

3. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektorearen kostuen indizea 2019-2021 (Urte arteko aldakuntza-tasa)




Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea




Eustaten Eraikuntzaren Koiunturaren Indizeak erakusten du 2021ean eraikuntzaren **sektorearen** batezbestekoak gora egin duela, % 7,8ra. Aldiz, **azken bi hiruhilekoetan tasa horrek indarra galdu du: % 6,2koa da hirugarrenean eta % 4,9koa laugarrenean.**

Eraikuntzaren Koiunturaren Indizearen datuek erakusten dute 2021eko jardueraren hazkundeak indarra galdu zuela azken bi hiruhilekoetan.

4. grafikoa. Euskadiko Eraikuntza Sektorerearen Koiunturaren indizea. 2015-2021



Urte arteko aldakuntza-tasa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Koiunturaren Indizea




Euskadin sektoreak izan duen bilakaera onaren aldean, Espainian jaisten jarraitzen du 2021ean.


2021ean, Espainiako BPGd % 5,5 igo da batez beste 2020koarekin alderatuta; Euskadiko ekonomiaren hazkundera baino hamarren bat gutxiago (% 5,6). Eraikuntza-sektorearen BEGd jaitsi egin da 2021ean (-% 3,5), eta urteko hiruhileko guztietan tasa negatiboak izan ditu.

5. grafikoa. Merkatuko prezioaren araberako benetako BPGd-aren eta Espainiako eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. 2008-2021. (Urte arteko aldakuntza-tasa)

Urtez urteko datuak



Hiruhilekoaren araberako datuak



Iturria: EIN. Estatuko Hiruhilekoko Kontuak


2021ean Euskadin amaitu dituzten etxebizitza libreen kopuruak beheranzko joera du. 2018tik dago joera hori. 3.343 etxebizitza amaitu ziren (2020an baino 47 gutxiago: -% 1,4).

Euskadin urte horretan hasitako etxebizitza libreen kopurua ere aurreko urtekoa baino txikiagoa da, 3.065 (104 etxebizitza gutxiago: -% 3,3ko tasa), nahiz eta 2020an izandako beherakada handia eten egin den.

2021ean jaisten jarraitzen du Euskadin hasi eta amaitu dituzten etxebizitza libreen kopuruak, aldiz, babes ofizialeko etxebizitzak igo egin dira.




6. grafikoa. Euskadin eta Estatuan amaitu dituzten etxebizitza libreak. 2007–2021



Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa

7. grafikoa. Euskadin eta Estatuan hasi dituzten etxebizitza libreak. 2007–2021




Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa

Etxebizitza babestuak eraikitzeko jarduerak gora egin zuen 2021ean, eta pandemiaren aurreko urteetan izan zuen goranzko joerara itzuli da. Euskadiko etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioak (amaitutako etxebizitzak) nabarmen igo dira 2021ean, eta kalifikatutako 1.099 etxebizitza erregistratu dira guztira, 2020koen erdia inguru (562 etxebizitza), nahiz eta 2019aren aurreko mailaren azpitik (1.344 etxebizitza) egon.

Bestalde, hasitako babestutako etxebizitzaren kopurua 2021eko hiruhilekoaren gainera dago. Hala, etxebizitza babestuaren aldi baterako 1.716 kalifikazio zeuden guztira (hasitako etxebizitzak) Euskadin 2021ean, 2020an baino % 21 gehiago, baina 2019an lortutako kopuruaren azpitik (2.083).




8. grafikoa. Etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioen (amaitutako etxebizitzak) bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2021



Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa

9. grafikoa. Etxebizitza babestuen aldi baterako kalifikazioen (hasitako etxebizitzak) bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2021



Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa



2. Eraikuntza-sektorearen jarduera Euskadin emandako obra handien lizentziatik abiatuta

Euskadin 2010etik ematen ziren obra handien lizentzien gehiengoak izan zen 2021ean.


2021ean obra handien 3.494 lizentzia erregistratu dira Euskadin, 2020an baino % 21,1 gehiago (609 lizentzia gehiago). 2010az gozotik erregistrorik onena da.

Lizentziarik ugarienak, birgaitzekoak (2.885 lizentzia, guztizkoaren % 82,6) % 18 igo dira azken hamabi hilabetetan (440 lizentzia gehiago) eta serie historikoaren balio gorena dira.


2021eko eraikin berrien 519 lizentziak (guztizkoaren % 14,9) % 38 igo dira ia 2020ko balioari dagokionez (urte horretan behea jo zuen 377 lizentziarekin), eta 2012az gozotik erregistrorik handiena da.

10. grafikoa. Obra handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2021


Guztira



Obra mota



Banaketa ehunekotan



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren inguruko estatistika



2021ean, **bizitegi-etxebizitzen** obra handietarako lizentzien kopurua (2.578 lizentzia) %15,2 igo da 2020arekin alderatuta. 2010az geroztik erregistratzen den lizentzia-kopururik handiena ere bada, 2021ean lau lizentziatik hiru izan baitira.

Obra handien lizentzien gorakada bi etxebizitza motetean izan da: **bizitegi-etxebizitzetan (+%15) eta bizitegi-etxebizitzak ez direnetan (+%41).**

3. taula. Obra handien lizentziak, Euskadiko obraren xedearen arabera. 2010-2021(*)
(Balio absolutuak eta urteko aldakuntza-tasak)


	BIZITEGI ETXEBIZITZAK		BIZITEGI ETXEBIZITZAK EZ DIRENAK	
	Guztira	Urte arteko aldakuntza	Guztira	Urte arteko aldakuntza
2010	1.774	% 20,5	764	% 48,9
2011	2.081	% 17,3	753	-% 1,4
2012	1.704	-% 18,1	652	-% 13,4
2013	1.556	-% 8,7	541	% -17,0
2014	1.793	% 15,2	730	% 34,9
2015	1.908	% 6,4	776	% 6,3
2016	2.263	% 18,6	822	% 5,9
2017	2.280	% 0,8	742	-% 9,7
2018	2.491	% 9,3	762	% 2,7
2019	2.531	% 1,6	705	-% 7,5
2020	2.238	-% 11,6	584	-% 17,2
2021	2.578	% 15,2	826	% 41,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren inguruko estatistika

(*) Eraispenetarako lizentziak ez dira kontuan hartzen

Nolanahi ere, datu historikoek erakusten dute **bizitegi-etxebizitzetarako** obra handien lizentziak direla nagusi (% 75,7 2021ean), **bizitegi-etxebizitzetarako ez direnekin** alderatuta (% 24,3).

11. grafikoa. Obra handien lizentziak, Euskadiko obraren xedearen arabera. 2010-2021(*)



(*) Eraispenetarako lizentziak ez dira kontuan hartzen

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren inguruko estatistika



2021ean, etxebizitza-erabileretarako obra handien lizentzien ehuneko osoa 679,3 milioi euro baino altuagoa izan zen Euskadin; informazio hori jasotzen denetik zifrarik altuena.

2021 da etxebizitza-erabileretarako lizentzietarako aurrekonturik altuena izan duen urtea.

Obra motaren arabera, **eraikin berrien** lizentzien aurrekontua **460,8 milioi eurokoa** da eta **birgaitzeko** lizentziena ia **218,5 milioi eurora** heltzen da; 2020arekin alderatuta nabarmen igo da eta pandemia aurreko zifrak ere gainditu ditu (+% 6,6 eraikin berrietan eta +% 4,9 birgaitzean).

4. taula. Bizitegi-erabilerako obra handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2016-2021


	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Aldakuntza-tasa 2020/2021
Eraikuntza berria	333.423.047	367.163.099	425.733.552	432.437.615	296.585.826	460.828.875	% 55,4
Birgaitzea	181.181.716	189.038.864	215.159.678	208.211.321	176.750.521	218.471.654	% 23,6

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren inguruko estatistika

Etxebizitzaren kopuruari dagokionez, 2021ean 6.109 etxebizitzaren gainean jardutea aurreikusten da; 10 urteko zifrarik altuena.

2021ean, **eraikin berriko aurreikusitako 4.697 etxebizitzek** % 56,5eko igoera izan dute (2020an baino ia 1.700 etxebizitza gehiago). Bestalde, birgaitzeko etxebizitzaren kopuruak hazten jarraitzen du 2021ean, **1.412 etxebizitza aurreikusi** baitziren, aurreko urtean baino % 18,1 gehiago.

12. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruaren bilakaera (berriak eta birgaitzekoak) Euskadiko obra handien lizentzien arabera. 2010-2021(*)



(*) Bizitegi-erabilerarako etxebizitzaren lizentziak soilik hartu dira kontuan

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren inguruko estatistika




3. Etxebizitzen merkatua Euskadin

Euskadiko etxebizitza berrien prezioak zuen goranzko joera murriztu egin da 2021ean.


2014tik, EInen Etxebizitzen Prezioaren Indizeak islatzen duen etxebizitza berri librearen prezioak goranzko joera du bai Euskadin, bai Estatuan. 2021ean, Euskadiko hazkunde-tasa % 3,0koa izan zen, Estatuokoa erdia (% 6,1).

13. grafikoa. Euskadiko eta Espainiako etxebizitza berriaren Etxebizitzen Prezioaren Indizearen bilakaera. 2007-2021 (Urte arteko aldakuntza-tasa)

Urtez urteko datuak



Hiruhilekoaren araberako datuak




Iturria: EIN. Etxebizitzen Prezioaren Indizea.

Nolanahi ere, **2020ko hirugarren hiruhilekoan dagoeneko, Etxebizitzen Prezioaren Indizeak 2008ko maila gainditu zuen Euskadin eta Espainian.** Euskadin Etxebizitzen Prezioaren Indizeak 144,7 puntu lortu zituen (2008an baino 6,6 puntu gehiago) eta Espainian 148,6 (urte horretan baino 13,1 puntu gehiago). Bi kasuetan, **2008az geroztiko baliorik altuenak dira.**

14. grafikoa. Euskadiko eta Espainiako etxebizitza berriaren Etxebizitzen Prezioaren Indizearen bilakaera. 2008-2021

Urtez urteko datuak




Iturria: EIN. Etxebizitzen Prezioaren Indizea.



2021ean, erabilitako etxebizitzaren prezioa nabarmen igo da Euskadin, eta horrek joera aldaketa dakar 2019 eta 2020arekin alderatuta. **Azken hiruhilekoan, erabilitako etxebizitzaren prezioaren indizea % 4,6 igo da Euskadin eta % 6,4 Estatuan.**

Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioaren bilakaeraren erritmoak joera-aldaketa izan du Euskadin 2021eko lehen hiruhilekotik aurrera, eta laugarrenean % 4,6 igo da.

15. grafikoa. Euskadiko eta Espainiako bigarren eskuko etxebizitzaren Etxebizitzaren Prezioaren Indizearen bilakaera, 2019 eta 2021eko hiruhileko bakoitzeko. (Urte arteko aldakuntza-tasa)




Iturria: EIN. Etxebizitzaren Prezioaren Indizea.

Etxebizitza-merkatuak dinamismo handia izan du 2021ean, eta etxebizitzaren salerosketak baliorik handiena lortu du 2009az geroztik.

Gainera, 2021eko etxebizitzaren prezioaren igoera salerosketen merkatu oso aktiboaren testuinguruan eman da. Euskadin 2021ean izan diren 25.277 etxebizitzaren salerosketek erakusten dute % 22,2ko igoera izan dela 2020tik eta 2009az geroztik erregistrorik altuena izan dela.

Estatu osoan azken urteko hazkunde-tasa are handiagoa izan da (+% 38,3) eta nabarmen gainditu dira 2009az geroztik lehen aldiz 600.000 salerosketak.

16. grafikoa. Etxebizitzaren salerosketen bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2009-2021



Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa




4. Euskadiko eraikuntza-sektorearen enpresa-ehunduraren bilakaera

COVIDaren krisiak ez ditu Euskadiko eraikuntza-sektoreko enpresak suntsitu

2021eko urtarrilaren 1ean 20.265 establezimendu zeuden, 2020ko urtarrilaren 1ean eraikuntzaren sektorean zenbatutako establezimenduak baino 183 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa %1era heltzen ez den arren, 2008ko krisiaz geroztik izan den hazkunderik handiena da (2019arekin batera).

Edozein kasutan, **Euskadiko eraikuntza-sektoreko enpresen ehundurak ez du gaintu 20.000 establezimenduren kota 2015etik, Atzerapen Handian erregistratutako beherakada handitik. 2021ean aktibo zeuden establezimenduen kopurua 2008aren aurretik zegoen enpresa-ehunduren % 58 soilik da.**

17. grafikoa. Eraikuntzaren sektoreko eta Euskadiko ekonomia osoko establezimenduen kopuruaren bilakaera. 2008-2021 (erreferentziarako urtearen urtarrilaren 1eko datuak). (Establezimenduen kopurua eta aldakuntza-tasa)




Iturria: Eustat, DIRAE

Euskadiko eraikuntza-sektorearen enpresa-ehundurak duen pisu erlatiboa egonkor mantendu da azken urteetan. 2021eko urtarrilean, % 11,9an egon da, Estatuko balioa baino bost hamarren beherago, eta 2008ko % 17,0tik urrun.



18. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektorearen enpresa-ehundurak izan duen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian 2008–2021



Iturria: Eustat. DIRAE
EIN. Enpresa Aktiboaren Direktorioa




5. Eraikuntza-sektoreak enpleguan izan duen bilakaera: Covid-19aren krisiaren inpaktua

2021ean berriz gora egin du Euskadin eraikuntza-sektorean lanean ari diren pertsonen kopuruak, 2020an izandako galera txikiaren ondotik

Euskadin 2021ean eraikuntzaren sektorean lanean ari ziren pertsonen kopurua (52,8 mila pertsona) % 5,4 igo da 2020arekin alderatuta. Duela urtebete baino 2,7 mila pertsona gehiago dira eta erregistrorik altuena da 2012tik.

Gorakada egon den arren, 2021eko sektoreko enplegua 2005ean zegoenaren % 62 da; orduan 83 mila langile zeuden. 2005 eta 2013 artean 37 mila enplegu garbi inguru galdu ziren eta oso partzialki berreskuratuta ahal izan dira; 2013tik 2021era 6,4 mila enplegu.


19. grafikoa. Euskadiko ekonomian eraikuntzaren sektorean ari diren langileak (milaka pertsona). 2005-2021



Iturria: Eustat. BJA

Nolanahi ere, eraikuntzaren sektorea izan da 2021ean enpleguan hazkunderik handiena izan duen jarduera-sektorea, Euskadiko batezbesteko hazkundera baino bost aldiz handiagoa izan baita (% 1,1). ABEEE-ek aukera eman dute eraikuntzaren sektorean 2019 eta 2020 artean 1,5 mila enplegu soilik galtzeko. 2021ean 2,7 mila enplegu berreskuratzea lortu zen.

20. grafikoa. Euskadiko enpleguaren aldakuntza-tasa: oro har eta eraikuntzaren sektorean 2006-2021



Iturria: Eustat. BJA



Hala, 2020ko apirilean sektoreko 5.129 langile zeuden ABEEEan. **2021ean zehar, nabarmen murriztu da enpresek ABEEEak ezartzeko izan duten beharra. Berri positibo horrek urte horretako jardueraren bilakaera ona islatzen du. 2021ean 30 pertsona soilik zeuden ABEEEan sektorean, Euskadin ABEEEan zeuden pertsona guztien % 0,8.**

ABEEEak ezarri direlako sektorean enplegua gutxiago suntsitu da. 2021ean jarduera hobetu denez, baliabide horretara gutxiago jo da.

5. taula. COVID-19aren ondorioz ABEEEan zeuden pertsonen bilakaera, Euskadiko jarduera-sektorearen arabera 2020ko martxoa-2021eko abendua

	Nekazaritza eta arrantza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira
2020, martxoa	87	24.825	4.260	113.125	142.297
2020, apirila	103	27.846	5.129	126.024	159.102
2020, maiatza	71	20.623	2.848	82.371	105.913
2020, ekaina	45	13.157	1.026	41.913	56.141
2020, uztaila	21	7.794	547	23.440	31.802
2020, abuztua	22	6.953	460	20.429	27.864
2020, iraila	19	6.073	386	17.998	24.476
2020, urria	29	4.585	274	17.898	22.786
2020, azaroa	37	5.517	254	42.035	47.843
2020, abendua	34	2.874	246	29.871	33.025
2021, urtarrila	52	3.159	194	35.690	39.095
2021, otsaila	31	3.200	199	27.760	31.190
2021, martxoa	20	3.125	191	23.141	26.477
2021, apirila	30	3.506	181	22.972	26.689
2021, maiatza	11	2.944	148	17.668	20.771
2021, ekaina	11	2.400	130	11.828	14.369
2021, uztaila	10	1.680	126	9.269	11.085
2021, abuztua	9	1.738	126	8.539	10.412
2021, iraila	6	2.050	105	7.504	9.665
2021, urria	6	1.997	82	5.337	7.422
2021, azaroa	4	407	27	3.418	3.856
2021, abendua	4	411	30	3.377	3.822

Iturria: Geuk egina, Gizarte Segurantzako datuak oinarri hartuta


2021ean Espainiako eraikuntza-sektorean lanean ari ziren herritarren kopurua ere igo da.

EINen arabera, Espainiako eraikuntza-sektoreko enplegua % 0,4 igo da 2021ean (% 0,3 murriztu zen 2020an). Gorakada txikia den arren, lanean ari diren pertsonen bolumenaren (1.285,9 mila pertsona) balioak ez ziren ikusten 2011tik (1.290,4 mila pertsona). Nolanahi ere, 2021ean sektorean izan den enplegua 2008an zegoenaren % 58 da.




21. grafikoa. Espainiako eraikuntza-sektoreko biztanleria okupatuaren bilakaera. 2008-2021
(Biztanleria eta aldakuntza-tasak)

Biztanleria okupatua (Milaka pertsona laugarren)




Aldakuntza-tasa



Iturria: EIN. EPA

Euskadin, 2021ean, sektoreko enpleguak lanean ari diren biztanleen gainean duen pisua % 5,6koa da, 2012az geroztik daturik altuena eta Estatuko zifra baino 8 hamarren baxuagoa.

22. grafikoa. Eraikuntza-sektorearen enpresa-ehundurak izan duen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian. 2008-2021



Iturria: Eustat. BJA
EIN. EPA

■ Euskadi ▲ Espainia



Enplegu autonomoaren pisua oso adierazgarria da oraindik sektorean. 2021ean, Euskadin, Langile Autonomoen Erregimen Berezian afiliatutako pertsonen kopurua % 18aren azpitik dago. Eraikuntza-sektorean afiliatutako pertsonen artean ehuneko hori % 38,5era igotzen da.

Euskadiko eraikuntza-sektorean Autonomoen Erregimen Berezian afiliatuta dauden pertsonak pisu erlatibo handiagoa dute industrian edo zerbitzuetan baino.

6. taula. Euskadin afiliatutako pertsonak jarduera-sektorearen eta erregimen motaren arabera. 2021

	... -(e)an afiliatutako pertsonak		Afiliatutako pertsonak, guztira
	... Autonomoen Erregimen Berezia	... Erregimen Orokorra	
Nekazaritza eta arrantza	% 58,1	% 41,9	% 100
Industria	% 13,5	% 86,5	% 100
Eraikuntza	% 38,5	% 61,5	% 100
Zerbitzuak	% 16,5	% 83,5	% 100
GUZTIRA	% 17,7	% 82,3	% 100

Iturria: Geuk egina, Gizarte Segurantzako datuak oinarri hartuta



6. Ondorioak

- 1. Euskadiko ekonomiak nabarmen egin zuen gora 2021ean zehar. BPGd % 5,6 igo zen.** Inflazioaren tentsioak areagotu egin diren arren eta nazioarteko merkatuetan ziurgabetasuna egon den arren, Euskadiko BPGd-k hazten jarraitzen du 2022an, dagoeneko geldialdiaren zantzuak agertzen hasi diren arren (+% 4,3 bigarren hiruhilekoan).
- 2. Susperaldi orokorraren testuinguru horretan, Euskadiko eraikuntza-sektoreak hazkunde positiboa izan du 2021ean (+% 2,4), Euskadiko ekonomia osoarena baino txikiagoa izan den arren.** 2022ko lehen hiruhilekoan, sektoreko ekoizpenak hazkunde-erritmoari eutsi dio (+% 2,5 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta).
3. Euskadiko eraikuntza-sektorearen 2021eko jarduera estatukoa baino handiagoa izan da; izan ere, 2021ean Estatuan beherakada nabaria izan da sektore horretan (-% 3,5).
4. 2021ean hazkundera izan arren, **Euskadiko eraikuntza-sektoreak oraindik pandemia aurretik baino 200 milioi euro gutxiago fakturatu ditu 2021ean** (4.233 milioi euro 2019an eta 4.024 milioi euro 2021ean).
5. **Sektoreak 52.800 langile izan ditu 2021ean Euskadin.** Enpleguaren joera oso positiboa izan da 2021ean; **% 5,4 igo da** eta 2012az geroztik erregistratutako mailarik altuena izan da. Euskadiko enplegua osoarekin alderatuta, hazkunde-tasa 5 aldiz handiagoa da.
6. ABEEE-en mekanismoa erabakigarria izan zen 2020an, Euskadiko ekonomia osoan bezala, COVIDaren krisiak enpleguan inpaktu negatibo handia izan zezan ekiditeko. 2020an 5.000 pertsonari baino gehiagori eragin zion neurri horrek. Alde horretatik, 2021ean sektoreak izan duen dinamismoaren ondorioz positiboenetako bat izan da 2021 hasieran 200 langile soilik zeudela ABEEE egoeran eta 2021 amaieran dozena batzuk baino ez.
7. Jarduera-lizentzien bilakaeraren bidez neurtutako sektorearen jarduerak islatzen du bilakaera positiboa izan dela 2021ean, bai eraikuntzaren jardueran (% 38 egin du gora 2020arekin alderatuta), bai birgaitzean, eta maximo historiko berri batera heldu da 2.885 lizentziarekin urte osorako (+% 18 urteko). **Euskadiko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren obra handiko lizentzien aurrekontu osoa 679,3 milioi eurokoa da,** Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren inguruko Estatistikaren serie historikoan izandako kopururik altuena.



8. 2022ko lehen hiruhilekoan ere joera positibo hori izan da: birgaitzeko lizentziak % 11,2 ugaritu dira, 2021ean hiruhileko horretan bertan erregistratutakoekin alderatuta, eta eraikin berrienak % 22,5. Hala ere, **2022an igo egin da ezgonkortasuna eta ziurgabetasuna ekonomia osoan, eta eraikuntzaren kostuei zuzenean eragin die.** Eraikuntzako kostuen indizea % 5 igo zen 2021 amaieran, eta 2022ko maiatzean urte arteko tasa % 11koa da.
9. Etxebizitzaren merkatuari dagokionez, Euskadiko dinamismoa berreskuratu du 2021ean, 2020an COVIDaren krisiaren ondorioz izandako geldialdi laburraren ostean. **2021ean 25.277 salerosketa izan dira guztira, hau da, 2009tik erregistratutako kopururik altuena.** Merkatuaren jarduera handiagoarekin batera, etxebizitza libre berrien prezioa igo egin da apur bat urteko azken hiruhilekoan (+% 3,0) eta gehixeago erabilitako etxebizitzaren kasuan (+% 4,6). Alabaina, 2022ko lehen hiruhilekoan badirudi goranzko joera hori indartu egin dela: erabilitako etxebizitzaren kopurua % 5,9 igo da eta etxebizitza libre berriarena % 7,5.
10. Nolanahi ere, etxebizitzaren merkatuak eta jarduerak hobera egin duten arren, Euskadiko eraikuntza-sektorea duela urte batzuk izandako dimentsiotik urrun dago, 34.000 establezimenduak gainditu zituen orduan. **2021ean 20.000 establezimendu baino gehiago izan ditu,** gehienak mikroenpresak edo ETEak, eta autonomoek presentzia erlatibo nabaria izan dute.
11. Alde horretatik, **sektorea une erabakigarrian dago Euskadiko gizarteak epe ertain eta luzera begira dituen erronkei dagokienez.** Alde batetik, beharren kopurua eta etxebizitzetara sartzeko eskaria nabarmenak dira oraindik ere, batez ere prezio eskuragarria duten etxebizitzaren kasuan.
12. Bestalde, Euskadiko eraikinen eta etxebizitzaren parkea hobetu eta birgaitzeko beharrek jardueraren eskari nabarmena ekarriko dute datozen urteetan. Hala, Etxebizitzaren gida Plana 2021-2023 eta EBren efizientzia energetikoaren finantzazio-olatu aukera handiak dira jarduera sustatzeko, eta **sektoreak birgaitzea sustatzeko duen rol energetikoa aitortzeko.** Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sektoreko funtsezko eragileekin eta Euskadiko beste erakunde eta instituzioekin beharrezko akordio eta aliantzak egiten ahaleginduko da, 2036ra begira herritarrek dituzten beharrei erantzuteko.

